

AKTA/ACTA

ORGANOA: Udalbatza
DEIALDIA: Lehenengoa
EGUNA: 2008.10.16
ORDUA: 11:00/12:00
LEKUA: Ziortza-Bolibarko
Udaletxeke Batzar Areto Nagusian.

ORGANO: Ayuntamiento Pleno
CONVOCATORIA: Primera
DIA: 16.10.2008
HORA: 11:00/12:00
LUGAR: Salón de Plenos del
Ayuntamiento de Ziortza-Bolibar.

BERTARATUAK:

Jose Salvador Azpiazu Totorikaguena
(EAJ/PNV)
Simon Mendibe Olabarria
(EAJ/PNV)
María Angeles Arriaga Etxebarria
(EAJ/PNV)
María Luisa Urkidi Aramburu
(EAJ/PNV)

ASISTENTES:

Jose Salvador Azpiazu Totorikaguena
(EAJ/PNV)
Simon Mendibe Olabarria
(EAJ/PNV)
María Angeles Arriaga Etxebarria
(EAJ/PNV)
María Luisa Urkidi Aramburu
(EAJ/PNV)

IDAIZKARI – KONTUHARTZAILEA:
Iratxe Rementería Otxandio


SECRETARIA - INTERVENTORA:
Iratxe Rementería Otxandio

Aztergaiak:

1. Aurreko batzarreko akta onartu.
2. 2.007ko aurrekontuaren berri eman eta gerakinen inkorporazioaren berri eman.
3. 2007ko kontu orokorra onartu.
4. 2008ko kreditu aldarazpena onartu.
5. E1 eta E2 loteen zehaztaperen azterlana behin – betiko onartu.
6. Udalhitz hitzarmenari atxikipena.
7. Galdera erantzunak.

Asuntos:

1. Aprobación del acta anterior.
2. Dar cuenta de la liquidación del presupuesto y de la incorporación de remanentes del año 2.007.
3. Aprobar la cuenta general del año 2.007.
4. Aprobar la modificación de créditos del presupuesto de 2.008.
5. Aprobación definitiva del estudio de detalle de los lotes E1 y E2.
6. Adhesión al convenio Udalhitz.
7. Ruegos y preguntas.



1. AURREKO BATZERREKO AKTA ONARTZEA.

2008ko ekainaren 17ko batzarreko akta aho batez onartu da.

2. 2007KO AURREKONTUAREN KITAPENAREN BERRI EMAN ETA GERAKINEN INKORPORAZIOAREN BERRI EMAN.

2007ko aurrekontuaren kitapenaren berri eman da eta urte bereko gerakinen inkorporazioaren berri.

Aurrekontuaren emaitza negatiboa izan da, 302.983,48 eurokoa.

Eta diruzaintzako gordekin likidoa positiboa 183.915,75 eurokoa eta berau 2008ko aurrekontuari erantsi zaio.

Udalbatzak azaldutakoa ikusirik aho batez hauxe erabaki du:

1.- 2007ko aurrekontuaren kitapenaren berri hartu eta 2003/10 Foru Dekretuak, 46. artikulua eta ondorengoetan jarritakoarena betearaztea agindu eta agiri guztiak Bizkaiko Foru Aldundira igorri.

3. 2.007KO KONTU OROKORRA ONARTU.

1. APROBACIÓN DEL ACTA ANTERIOR.

Se procede a la aprobación por unanimidad del acta de la sesión de pleno celebrada el día 17 de junio de 2.008.

2. DAR CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO Y DE LA INCORPORACIÓN DE REMANENTES DEL AÑO 2.007.

Se procede a dar cuenta de la liquidación del presupuesto del año 2.007 así como de la incorporación de remanentes del año 2.007.

La liquidación del presupuesto arroja un resultado presupuestario negativo de 302.983,48 euros.

Y el remanente líquido de tesorería ha resultado positivo por un importe de 183.915,75 euros, el cual ha sido incorporado al presupuesto de 2.008.

La Corporación a la vista de lo expuesto acuerda por unanimidad lo siguiente:

1.- Tomar razón de la liquidación del año 2.007 y ordenar la tramitación del expediente de conformidad con los artículos 46 y siguientes de la Norma Foral Presupuestaria 10/2003, y remitir la misma a la Diputación Foral de Bizkaia.

3. APROBAR LA CUENTA GENERAL DEL AÑO 2.007.



Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak, 62. artikuluan eta ondorengoetan hau dio:

“ Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketan berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

- a) Egoeraren balantzea.
- b) Galera eta irabazien kontua.
- c) Memoria; honek agtal hauek izan behar ditu:
 1. Finantzaketa- koadroa.
 2. Zorraren egoera.
 3. Informazio – eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta kontabilitate orokorra erlazioatu egin behar dira.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.

Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

1. Egiatzapenaren balantzea.
2. Kreditu – aldaketen egoera – orria.
3. Baloreen egoeraren eta mugimenduen orria.

Toki erakundearen urtekoari eta kontuen berri hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen emango du udalburuak.

Udalburuak gertututako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da

La Norma Foral 10/2003 de 2 de diciembre, reguladora de los presupuestos y de la contabilidad de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia en su artículo 62 y siguientes recoge lo siguiente:

“ Las Entidades Locales, a la terminación del ejercicio presupuestario, formarán la Cuenta General que pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario, y que estará integrada por :

- a) Balance de situación.
- b) Cuenta de pérdidas y ganancias.
- c) Memoria, que incluirá:
 1. Cuadro de financiación.
 2. El estado de la deuda.
 3. Un anexo informativo que relacione la liquidación del presupuesto con la contabilidad general.
- d) La liquidación del presupuesto.

Los anexos a los Estados Anuales serán:

1. Balance de Comprobación.
2. Estado de Modificaciones de Créditos.
3. Estado de situación y Movimientos de valores.

Los estados y cuentas de la Entidad Local serán rendidos por su Presidente antes del día 30 de abril del ejercicio siguiente al que correspondan.

La Cuenta General formada por el Presidente de la Corporación serán



toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

Kontu Orokorra, aurreko idatz-zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendeaurrea azalduko 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekikn batera, Kontu Orokorra udalbatzaren onespenerako jarrikoa da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.

Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Publikoaren berri emango dio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.”

Udalbatzak, izapideak bete ondoren, hauxe erabaki du:

1.- 2007.ko Kontu Orokorra onartzea.
2.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari dokumentazio guztia igorri erabaki honen kopiarekin batera.

4. 2008KO KREDITU
ALDARAZPENA ONARTU.

Aurrekontuaren eragiketaren egoera aztertu ondoren, zenbait partiden

sometida antes del día 15 de mayo a informe de la Comisión Especial de Cuentas de la Entidad local.

La Cuenta General, con el informe de la Comisión Especial a que se refiere el apartado anterior, será expuesta al público por plazo de 15 días, durante los cuales los interesados podrán presentar reclamaciones, reparos u observaciones. Examinados éstos por la Comisión Especial y practicadas por la misma cuantas comprobaciones estime necesarias, emitirá nuevo informe.

Acompañada de los informes de la Comisión Especial y de las reclamaciones y reparos formulados, la Cuenta General se someterá al Pleno de la Corporación para que, en su caso, pueda ser aprobada antes del 31 de julio.

Las Entidades Locales rendirán al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.”

La Corporación, tras cumplir los trámites legales, acuerda lo siguiente:

1.- Aprobar la Cuenta General del año 2007.
2.- Remitir toda la documentación preceptiva al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas junto con una copia del presente acuerdo.

4. APROBAR LA
MODIFICACIÓN DE
CREDITOS DEL AÑO 2.008.

Se procede a dar cuenta de la situación del estado de ejecución del presupuesto en



aldarazpen proposamenen berri eman da. Aldarazpen hori gauzatzeko, aurrenez hasierako onarpena eman behar zaio. Ondoren Bizkaiko aldizkari ofizialera bidali eta herriko taulan iragarkia jarriko da. Jende aurrean erakusgai egon behar den epea bukatu ondoren, eta alegaziorik aurkeztuko ez balira, berriro aldizkarian aurrekontuaren laburpena (kapituluka) argitaratuko da, horrela hau argitaratzerakoan, aldarazpena indarrean hasiko da.

Udalbatza azaldutako aztertu ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu du:

- 1.- Aldarazpena onartu.
- 2.- Goian aipatutako izapideak bete.

5. E1 ETA E2 LOTEEN ZEHAZTAPEN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTU.

Alkatearen ebazpenaren bidez E1 eta E2 loteen zehaztapan azterlanari hasierako onarpena eman zitzaion.

Espedientea jende aurrean jarri zen, eta ez zen alegaziorik aurkeztu horren aurka.

Udalbatzak azaldutako ikusirik aho batez ondorengo erabakia hartu du:

- 1.- E1 eta E2 loteen zehaztapan azterlanari behin betiko onarpena ematea.
- 2.- Bizkaiko aldizkari ofizialean eta Bizkaiko lurraldeko egunkari batetan erabakiaren berri eman.
- 3.- Etxabe etxegintza, S.L. eta gainontzeko interesatuei erabaki hau jakinaraztea.

base al cual se han propuesto la modificación de una serie de partidas. Tal modificación exige para su aprobación, la adopción de un primer acuerdo, envío de un anuncio al Boletín y publicación en el tablón de anuncios, y una vez transcurrido el plazo de exposición pública para el supuesto de que no se hayan presentado alegaciones, remitir un resumen del presupuesto por capítulos al Boletín, para la efectiva entrada en vigor de la modificación.

La Corporación a la vista de lo expuesto acuerda por unanimidad lo siguiente:

- 1.- Aprobar la modificación.
- 2.- Cumplimentar los trámites anteriormente señalados.


5. APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LOS LOTES E1 Y E2.

Mediante decreto de alcaldía se procedió a aprobar inicialmente el estudio de detalle de los lotes E1 y E2.

Se sometió el expediente a exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones al mismo.

La Corporación a la vista de lo expuesto acuerda por unanimidad lo siguiente:

- 1.- Aprobar definitivamente el estudio de detalle de los lotes E1 y E2.
- 2.- Remitir un anuncio al Boletín Oficial de Bizkaia y publicar un anuncio en un periódico del Territorio Histórico.
- 3.- Notificar el presente acuerdo a Etxabe Etxegintza, S.L. y al resto de interesados.



6. UDALHITZ HITZARMENARI ATXIKIPENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkartza bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du

6. ADHESIÓN AL CONVENIO UDALHITZ.

Existe en la Administración Local de la Comunidad Autónoma Vasca una larga trayectoria de acuerdos de relaciones laborales entre EUDEL, en representación de las entidades locales, y los sindicatos más representativos, que se iniciaron en los Acuerdos Reguladores de las Condiciones de Empleo del Personal de la Administración Local y Foral de Euskadi (ARCEPAFE), y prosiguieron en los Acuerdos Udalhitz, de marzo de 2006, y que han permitido ir estructurando un marco de condiciones de trabajo avanzado y un gran desarrollo de la eficacia, calidad y espíritu de servicio a la ciudadanía de las Instituciones territoriales vascas.

La Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, en su artículo 34, permite ahora consolidar todavía más este marco unitario de relaciones laborales para todas las instituciones municipales vascas, al reconocer de modo explícito la posibilidad de que las asociaciones de municipios como EUDEL asuman directamente la representación de las instituciones locales, a todos los efectos, en el proceso negociador.

De este modo se posibilita que EUDEL haya asumido las negociaciones con los interlocutores sindicales en nombre de las instituciones locales, formalizando acuerdos sectoriales de aplicabilidad inmediata a cada institución mediante el trámite de la adhesión a los mismos, lo cual supone una importantísima simplificación de la dinámica



negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezzen.

Udalbatzak aurreko guztia kontutan izanik ondorengo erabakia hartu du ahobatez:

1.- Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta sindikatueta ordezkarien artean.

7. GALDERA ERANTZUNAK.

Ziortza Larizek eta Lidia Lejardik aurkeztutako mozioaren berri eman du alkateak. Mozioa ondorengo da:

negociadora y a la vez posibilita la homogeneización de condiciones laborales entre todas las instituciones, todo lo cual es muy beneficioso para todas las partes en presencia.

El 22 de septiembre EUDEL, Asociación de Municipios Vascos, y las Centrales Sindicales ELA-STV, CCOO y UGT han suscrito los Acuerdos Udalhitz 2008-2010, reguladores de las condiciones de personal funcionario y laboral de las instituciones locales vascas, que han sido remitidos al objeto de que este ayuntamiento se adhiera los mismos.

La Corporación a la vista de lo expuesto acuerda por unanimidad lo siguiente:

1.- Adherirse a los Acuerdos Udalhitz 2008-2010 reguladores de las condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral de las instituciones locales vascas, de fecha 22 de septiembre de 2008, suscritos por EUDEL, Asociación de Municipios Vascos, y la representación sindical.

7. RUEGOS Y PREGUNTAS.

El alcalde procede a dar cuenta de la moción que a continuación se transcribe presentada por Ziortza Lariz y Lidia Lejardi.



SALBUESPEN EGOERARI STOP! EUSKAL HERRIAK AUTODETERMINAZIOA

-PSOEk Gobernuak aspalditik idatzitako gidoia hitzez hitz bete da: Auzitegi Goreneko 61. Salak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo utzi ditu. Eta bi ilegalizazio berri hauei gehitu behar diogu Amnistiaren aldeko mugimenduko 21 kideren aurkako espetxe zigorrak eta Askatasunaren legez kanporatzea eta, oro har, azken asteetan eman diren tortura kasu lazgarriak, atxiloteta eta espetxeratze arbitrarioak, bahiketak, manifestazio debekuak, udaletxez udaletxe eta erakundeetan ematen den apartheid-a, eta abar luze bat. Hitz gutxitan: salbuespen egoera amia bizi du Euskal Herriak, gure herrian ez dago demokraziarik.

-Euskal Herrian ez dago demokraziarik. Espainiar estatuan frankismoak bizi-bizirik jarraitzen duelako. Orain 30 urte ez zen frankismoarekin bukatu, ez zen benetako trantsiziorik izan. Espainian, erregimen frankistaren oinordekoek, epaitegiek, epaileek, komunikabideek, politikoez agintzen dute oraindik ere, eta PSOEk ez du inolako eskrupulurik eta lotsarik frankistekin lerrokatzeko, frankismoaren kontra borrokatu zutenak espetxera bidaltzeko, gune herrian hizki larriz idatzitako salbuespen egoena ezartzeko, Espainiako kartzelak independentistentzat kontzentrazio eremu bilakatzeko... Honi guztia helburu jakin batekin: ezker independentismoarekin, eta oro han, Euskal Herriaren askatasun nahiarekin behin betikoz amaitzeko.

-Euskal Herrian aldaketa politikorako aukera zabalik dago eta PSDEk, salbuespen egoena basatienez ezarriz, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarritutako aldaketa politikoa galarazi eta gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa kosta ahala kosta iraunarazi nahi du, duela 30 urte egin bezalaxe, indarrez iraunarazi ene. Horretarako aldaketa horren motorra den ezker abertzalea txikituz eta Euskal Herriaren eskubideen aldeko jarduerak jazarri.

-Aitzitik, ez da PSOE, Euskal Herriaren ukazioa, zatiketa eta menpekotasunean oinarritutako marko konstituzional-autonomiko antidemokratiko honen defentsan ari den eragile bakarra. Izan ere, zeregin horretan, beste behin ere, duela 30 urteko iruzurrean parte hartu zuten eragile berberen laguntza izaten ari delako.

-30 urte daramatzagu marko konstituzional-autonomiko honen baitan eta inoiz baino agerikoagoa da marko horrek, Euskal Herriaren herri eskubideak ahalbideratzen urrun, horien ukazioa iraunarazteko bitartekoa dela eta hartara, marko horrek ez duela inolaz ere gatazka politikoren gainditzea ahalbideratuko. Are gehiago, marko konstituzional-autonomiko honek, 30 urte geroago, frankismoa itzultzea ahalbidetu du, salbuespen egoera ezartzea.

Ebazpenak:

-Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bitzita politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du.

-Udal honek ilegalizazio estrategia euskal herritarren nahiz Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela adierazten du.

-Udal honek alderdi politikoen ilegalizazio estrategiak normaltasun politikotik urundu eta gatazka politikoa elikatzen duela adierazten du.

-Udal orok herritarren borondatea behar du oinarri. Hortaz, udal honek, herritarren borondatearen aurkako lege, epai edota erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.

-Udal honek herritarrek aukeraturiko ezker- abertzalearen zinegotziak eta parlamentariak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.

- Udal honek ezker abertzalearen parte hartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.

- Udal honek euskal jendarteak nahi eta eskatzen duen aldaketa politikoa, Euskal Herriaren autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarritutako den aldaketa, gauza dadin bere ekarpena egiteko prest dagoela adierazi nahi du.

-Udal honek, alderdi interesen gainera, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubideetan oinarritutako duen marko demokratikoren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.



-Udal honek ilegalizazio estrategiaren bidez Euskal Herrian ezarritako salbuespen egoera salatzeko eta euskal herritarren eskubideak nahiz borondatea errespetatu dadin exijitzeko "Herriaren borondatea errespetatu: ilegalizaziorik ez!" lelopean manifestazio bat egiteko deia luzatzen du eta herritarrei manifestazio horretan parte hartzeko gonbitea luzatzen dio.

-Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakinaraziko zaio.

Alkateak ondorengo erantzuna eman du:	El alcalde ofrece la respuesta que a continuación se transcribe:
---------------------------------------	--

Mozioa: EAJ/PNV: Ilegalizazioak.

Ziortza-Bolibarko Udalak EAE-ANV eta EHAK ren ilegalizazioak direla eta ondorengo mozioa onartzea proposatzen du:

1.- Ziortza-Bolibarko Udala pertsona guztien giza eskubideen urraketan kontra agertu gura dau. Oinarrizkoak diren eskubideak errespetatu daitezela aldarrikatzen du beraz, bizitzeko eskubidea, ideologia edo pentsaera desberdinak izateko askatasuna, nork bere iritzia adierazteko askatasuna eta alderdi desberdinetan elkartzeko askatasuna, besteak beste.

2.- Euskal gizartea ezin da oinarrizko giza eskubide horrek albo batera utzita eraiki. Alderdien Legea eta Alderdi politikoen ilegalizazioa ez dira elkarbizitza politikoa lortzeko moduak. Eta era berean, herrigintza horren aurka egiten da, herriaren bizimodu normalizatuaren kontra, eta erabat onartezinak dira, jardun antidemokratiko jakin batzuk. Eurak jotzen dabe alderdi politikoen egoitzen eta herrietako altzarien kontra eta, oro har, herritar guztiok ordaintzen ditugu.

3.- Horregatik, Ziortza-Bolibarko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen deutso, Alderdien Legeak desagiteko berak sortzen dabezan eragozpenengatik, eta eskatu gure herrira elkarriketa politikoa ekarriko daben neurriak hartu dagizala. Baita, ETArri exijitu desagertzeko, eta euskal gizarteari itxi dagiala behin betiko bere etorkizuna zelakoa izan behar duen aukeratzen.

-Mozio honetan onartutakoa herritarrei zein komunikabideei haitzen emango zaie.

Tratatzeko beste gairik ez dagoelarik No habiendo más asuntos que tratar el
alkateak batzarra amaitutzat eman du.- alcalde levanta la sesión.-

Ziortza-Bolibarren 2008ko urriaren Ziortza-Bolibar a 16 de octubre de 2.008.
16an.

Alkatea/alcalde
Jose Azpiazu

Secretaria
Iratxe Rementeria